# Xedapen Orokorrak

## UNIVERSIDAD DEL PAÍS VASCO
## EUSKAL HERRIKO UNIBERTSITATEA

### Zk-4710

EBAZPENA, 2003.eko uztailaren 24koa, Universidad del País Vasco / Euskal Herriko Unibertsitateko errektorearena, Arabako Campuseko batzarrearen arautegia Euskal Herriko agintaritzaren aldizkarian argitaratzea agintzeko dena.

Estatutuetako 2. artikuluak ezartzen duenez, Universidad del País Vasco / Euskal Herriko Unibertsitatea Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako Campusek osatzen dute; bere jarduerak garatzeko, batasunaren hastapenean oinarritzen da, eta herrialde mailako deszentralizazioa eta betekizunen deskontzentrazioaren bidez antolatzen da. Deszentralizazio eta deskontzentrazio horiek garatzeko, testu bereko 44. artikuluak ezartzen du Unibertsitateko kide anitzeko organoetako bat Campuseko Batzarra dela; beraz, Araba, Gipuzkoa eta Bizkaiko Campusetako Batzarreak eratzea aurreikusita dago.

2003.eko ekainaren 20an egindako saioan, Arabako Campuseko Batzarreak «Arabako Campuseko Batzarrearen Arautegiaren» 8.1 artikuluaren aldaketa onartu zuen. Arautegi horrek Estatutuetako III. Tituluko III. Kapituluaren IV. Atalean jasotako xedapenak garatzen ditu, hain zuzen ere, bere osaketa, eskumenak, modu zuzenean eratzeko betebeharrak eta organo horren saioen garapenari buruzkoak, besteak beste.

Beste alde batetik, Euskal Autonomia Erkidegoko Unibertsitatea Antolatzeko ekainaren 29ko 19/1998 Legea indarrean sartzearen ondorioz (1998ko uztailaren 16ko EHAA), Unibertsitateko gobernu-organoek ematen dituzten aplikazio orokorreko xedapenak ez dira indarrean jarriko beren testu osoak Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu arte (4.7. art.).

Hori guztia dela-eta, Unibertsitatea Antolazeko 19/1998 Legeko 4.7. artikulua betetzeko, honakoa

EBATZI DUT:

***Lehenengoa.***– Arabako Campuseko Batzarrearen Arautegiaren 8.1 artikuluaren aldaketa Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzea, I. Eranskinean jasotako baldintzetan.

***Bigarrena.***– Arautegi hori argitaratzen den egunaren biharamunean sartuko da indarrean.

Leioa, 2003.eko uztailaren 24a.

Errektorea,
MANUEL MONTERO.

# Disposiciones Generales

## UNIVERSIDAD DEL PAÍS VASCO
## EUSKAL HERRIKO UNIBERTSITATEA

### N°-4710

RESOLUCIÓN de 24 de julio de 2003, del Rector de la Universidad del País Vasco / Euskal Herriko Unibertsitatea, por la que se ordena publicar en el Boletín Oficial del País Vasco modificación del artículo 8.1 del Reglamento de la Junta de Campus de Álava.

El artículo 2 de los Estatutos establece que la Universidad del País Vasco / Euskal Herriko Unibertsitatea está integrada actualmente por los Campus de Álava, Gipuzkoa y Bizkaia, y que para el desarrollo de sus actividades se fundamenta en el principio de unidad y se organiza de forma territorialmente descentralizada y funcionalmente desconcentrada. En desarrollo de esa descentralización y desconcentración el artículo 44 del mismo texto legal recoge como uno de los órganos colegiados obligatorios de la Universidad son las Juntas de Campus, contemplando la constitución de las Juntas de Campus de Álava, Gipuzkoa y Bizkaia.

En sesión celebrada el 20 de junio de 2003 la Junta de Campus de Álava aprobó la modificación del artículo 8.1 del «Reglamento de la Junta de Campus de Álava», Reglamento que desarrolla los preceptos recogidos en la Sección IV del Capítulo III del Título III de los Estatutos, relativos a su composición, competencias, requisitos para su válida constitución y desarrollo de las sesiones del órgano, entre otras.

Por su parte, la entrada en vigor de la Ley 19/1998, de 29 de junio, de Ordenación Universitaria de la Comunidad Autónoma del País Vasco (BOPV 16 de julio de 1998) ha supuesto que en virtud del apartado séptimo del artículo 4 de ese cuerpo legal las disposiciones de general aplicación que dicten los órganos de gobierno no entren en vigor hasta la integra publicación de sus textos en el Boletín Oficial del País Vasco.

Por todo lo anterior, en cumplimiento del apartado séptimo del artículo 4 de la Ley 19/1998, de Ordenación Universitaria

RESUELVO:

***Primero.***– Publicar en el Boletín Oficial del País Vasco la modificación del artículo 8.1 del Reglamento de la Junta de Campus de Alava, en los términos recogidos en el Anexo I.

***Segundo.***– Esta modificación entrará en vigor al día siguiente de su publicación.

En Leioa, a 24 de julio de 2003.

El Rector,
MANUEL MONTERO.

I ERANSKINA

8.1. Art. Campuseko batzarreetarako lehenengo eta bigarren deialdiak egun berean ezarriko dira eta bion artean ordu erdia delarik, bai ohiko batzarreetarako zein ezohikoetarako.

ANEXO I

Art. 8.1. Se establecerán primera y segunda convocatorias de la Junta de Campus, en el mismo día, y con media hora de diferencia entre ambas, tanto para las Juntas ordinarias como para las extraordinarias.

**KONSTITUZIO AUZITEGIA**

**Zk-4711**

EDIKTUA, 5174/2003 zk.ko Konstituziokontrakotasun-errekurtsoaren ondoriozkoa.

Konstituzio Auzitegia.– 5174/2003 zk.ko Konstituziokontrakotasun-errekurtsoa, Gobernuko lehendakariak sustatutakoa, hain justu ere Eusko Legebiltzarraren maiatzaren 7ko 2/2003 Legearen, zehazki, izatezko bikoteak arautzen dituenaren kontra.

Aurtengo abuztuaren 7ko Probidentziaren bitartez, Konstituzio Auzitegiak, izapideak egin dakizkion, onartu egin du 5174-2003 zk.ko konstituziokontrakotasun-errekurtsoa, Gobernuko presidenteak sustatutakoa, Eusko Legebiltzarraren maiatzaren 7ko 2/2003 Legearen, zehazki, izatezko bikoteak arautzen dituenaren 8. artikuluaren kontra. Gobernuko presidenteak Konstituzioaren 161.2 artikulura jo duela adierazten da, eta horrek eten egiten du aurkatzen den manuaren aplikazioa eta indarra, hain justu ere prozesuko parteei dagokienez errekurtsoa aurkeztu zen egunetik —2003ko abuztuaren 3tik— aurrera, eta gainontzekoei dagokienez ediktu hau Estatuko Aldizkari Ofizialean argitaratzen denetik aurrera.

Madril, bi mila eta hiruko abuztuaren 7an.

Sekzioko presidentea. Konstituzio Auzitegia,
PABLO GARCÍA MANZANO.

**TRIBUNAL CONSTITUCIONAL**

**N°-4711**

EDICTO dimanante del recurso de inconstitucionalidad número 5174/2003.

Tribunal Constitucional.– Recurso de Inconstitucionalidad número 5174/2003, promovido por el Presidente del Gobierno, contra el artículo 8 de la Ley del Parlamento Vasco 2/2003, de 7 de mayo, reguladora de parejas de hecho.

El Tribunal Constitucional, por providencia de 7 de agosto actual, ha admitido a trámite el recurso de inconstitucionalidad número 5174-2003, promovido por el Presidente del Gobierno, contra el artículo 8 de la ley del Parlamento Vasco 2/2003, de 7 de mayo, reguladora de las parejas de hecho. Y se hace constar que por el Presidente del Gobierno se ha invocado el art. 161.2 de la Constitución, lo que produce la suspensión de la vigencia y aplicación del precepto impugnado desde la fecha de interposición del recurso -4 de agosto de 2003-, para las partes del proceso, y desde la publicación del correspondiente edicto en el Boletín Oficial del Estado para los terceros.

Madrid, a 7 de agosto de dos mil tres.

El Presidente de Sección. Tribunal Constitucional,
PABLO GARCÍA MANZANO.